# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2012ko abenduaren 7a | 103. ZK.

**A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (11. or.).

—Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (13. or.).

—Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 28. artikulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (19. or.).

—Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (20. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.

*ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluak ezarritakoa betez, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuko artikuluei aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Foru lege proiektua 2012ko azaroaren 5eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**
JAUNAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen testu berria:

“Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren manu hauek (Testu Bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), honela idatzita geldituko dira:

Bat. 25. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“2. Etxebizitzatarako ondasun higiezinen errentamenduetatik eratorriak diren kapital higiezinaren etekinetan honako etekinak sartuko dira: sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzarekin eginiko errentamenduak egiten dituzten etxebizitza-jabeek lortutakoak, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautuko dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluan xedatuaren arabera.

3. Erregelamenduz denboran modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen diren errendimendu garbi positiboei, edota bi urtetik gorako epean lortutakoei, ehuneko 40ko murriztapena aplikatuko zaie. Errendimenduen sortze-aldiaren zenbaketak, errendimendu horiek era zatikatuan kobratzen badira, kontuan hartu beharko du zatikapen-urteen kopurua, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz.”

Bi. 54. artikuluko 1. b) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“b) Ondare-elementuen eskualdatzeak direlaeta agerian jartzen eta urtebete baino gehiagoko epean gertatzen diren ondare-gehikuntza edo -murrizketengatik. Halaber, aurrezkiaren atal berezian integratuko dira ohiko etxebizitza eskuratu edo zaharberritzeagatik kapital moduan jasotako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak.”

Hiru. 55. artikuluko 3. idatz-zatia (“Gutxieneko pertsonalarengatik”) kentzen da.

Lau. Berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

“58. artikuluak aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikuluak aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 3.825 | -2,0 |
| 3.825 | -76,50 | 4.674 | -1,0 |
| 8.499 | -123,24 | 9.027 | 0,0 |
| 17.526 | -123,24 | 13.279 | 1,5 |
| 30.805 | 75,95 | 14.675 | 2,0 |
| 45.480 | 369,45 | 7.927 | 2,5 |
| 53.407 | 567,62 | 34.593 | 3,0 |
| 88.000 | 1.605,41 | 37.000 | 4,0 |
| 125.000 | 3.085,41 | 50.000 | 5,0 |
| 175.000 | 5.585,41 | 125.000 | 7,0 |
| 300.000 | 14.335,41 | Gainerakoa | 9,0 |

b) 60. artikuluak aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 6.000 | 1 |
| 6.000 | 60,00 | 18.000 | 3 |
| 24.000 | 600,00 | Gainerakoa | 7 |

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta".

Bost. 62. artikuluko 1.g) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzak badira, a) letran aipatutako portzentajea % 18koa izanen da. Portzentaje hori % 30ekoa izanen da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen familia ugariek eskuratutako ohiko etxebizitza denean, hain zuzen ere familia-izaera hori dutenek, Familia Ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera".

Sei. 62. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"2. Etxebizitzaren alokairuagatiko kenkaria.

%18 eta gehienez ere 1.100 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen dirukopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak zergaldian ez izatea 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, salbuetsiak bazter utzita.

– Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboaren zergaldiko errenten ehuneko 10 baino gehiagokoak izatea, salbuetsiak bazter utzita."

Zazpi. 62. artikuluko 5.1.a idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"5. Lanagatiko kenkaria.

"Lehena. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro.

b) 9.100,01 eta 13.500 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,135.

c) 13.500,01 eta 31.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 31.000,01 eta 45.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 31.000 euro, eta horren emaitza bider 0,05.

e) 45.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 0 euro".

Zortzi. 62. artikuluaren amaieran 12. idatz-zatia gehitzen da:

"12. Gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 925 eurokoa izanen da.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 225 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 500 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin baditu.

b) 625 euro, % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasun gradua frogatzen duten subjektu pasibo ezgaituentzat. Zenbateko hori 2.250 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatuz gero bere minusbaliotasun gradua % 65ekoa edo handiagoa dela."

Bederatzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatia aldatzen da.

"1. "1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkariari, testu bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoari, dagokionez, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikulu horren a) eta g) letretan ezarritako kenkariportzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa izanen dira, hurrenez hurren, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzen kasuan."

**2. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuko lehenengo artikuluko Hamaika atala aldatzeko zuzenketa.

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina.

Hamaika. "Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatiko b) letra eta 2. idatz-zatia.

1. idatz-zatiko b) letra.

b) Era berean, gizarte-laguntzako jarduerak irabazi asmorik gabe egiten dituzten entitateek edo erakunde publikoek antolatutako loteria, apustu eta zozketetako sariak, erakunde horiek Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatukide batean finkatuak badaude eta aurreko lerroaldean adierazitako erakundeen edo entitateen helburu berberak badituzte.

Karga berezia loteria edo apustuko dezimo, frakzio edo kupoi saritu bakoitzari banan-banan ezarriko zaio".

2. idatz-zatia.

"2. Karga berezitik salbuetsita egonen dira 2.500 euroko zenbateko osoa edo hori baino txikiagoa duten sariak. Zenbateko osoa 2.500 eurotik gorakoa duten sariek tributatu egin beharko dute, zenbateko hori gainditzen duen zatiari dagokionez.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatuko da loteriaren edo apustuaren dezimo, frakzio edo kupoia gutxienez 0,50 eurokoa denean. 0,50 eurotik beherakoa denean, salbuetsitako gehieneko zenbatekoa, aurreko lerroaldean aipatua, proportzioan murriztuko da.

Saria titulartasun partekatukoa izanez gero, aurreko lerroaldeetan aurreikusitako zenbateko salbuetsia hainbanatu eginen da titularkideen artean, bakoitzaren kuotaren arabera".

Zioak: Zuzenketa honetan proposatzen diren aldaketak hiru eratakoak dira:

1.- Hobekuntza tekniko bat, hobeto zehazteko zein izanen den loteriaren edo apustuaren erreferentzia-unitatea, gero karga berezia exijituko zaiona. Horrela, "txartela" adierazpide generikoaren ordez –zehaztugabea eta desegokia gertatzen zen joko eta apustu batzuetarako–, "dezimo, frakzio edo kupoi" terminoak erabili dira, askoz ere hobeto zehazten dutelako erreferentzia-unitate hori.

2.- Euro batetik 0,50 eurora jaisten da loteriaren edo apustuaren dezimo, frakzio edo kupoiaren zenbatekoa, zehazteko sariaren zer zati egonen den salbuetsita. Zenbatekoa 0,50 eurora jaitsita, diru-kopurua doitzen da gaur egun dauden apustuen zenbatekora.

3. Testua hobetu egin da teknikoki: “karga bereziari loturik egonen dira” beharrean, “tributatu egin beharko dute” jarri da. Askozaz ere zehatzagoa da; izan ere, 2.500 eurotik gorako sariak ez dira soilik egonen karga bereziari lotuta, baizik eta tributatu egin beharko dute karga berezi hori dela-eta.

**3. ZUZENKETA**

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
**TALDE POPULARRAK**
AURKEZTUA

Lehenengo artikuluan (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari buruzko aldaketak biltzen ditu), Hamabi atalean, proposatzen den xedapen gehigarri berriaren 2. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

“b) Enpresa txikia edo mikroenpresa izatea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 50.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz”.

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko 50.1.b) artikuluak baldintzak ezartzen ditu bai enpresa txikientzat eta bai mikroenpresentzat ere; lege proiektuak, aldiz, lehenbizikoak bakarrik aipatzen ditu.

**4. ZUZENKETA**

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
**TALDE POPULARRAK**
AURKEZTUA

Lehenengo artikuluan (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari buruzko aldaketak biltzen ditu), Hamabi atalean, proposatzen den berrogeita laugarren xedapen iragankorreko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzeko zuzenketa.

c) Hiru urteko bizia baino gutxiago izatea, jarduera hasi eta ondoko urtarrilaren 1etik hasita.

Zioak: Lege proiektuaren beraren zioen azalpenean definituta agertzen denez zer den jarduera ekintzailea, horretara egokitzea eta denbora-epea bateratzea.

**5. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**
JAUNAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, lehenengoa bis. Hona testua:

Lehenengoa bis artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea

Bat. 5. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere.”

Bi. 28. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 300.000 euro murriztuko da.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributuak bai betebehar pertsonalarengatik bai betebehar errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboei.”

Hiru. 30. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,15 |
| 155.511,88 | 233,27 | 155.511,88 | 0,20 |
| 311.023,76 | 544,29 | 311.023,76 | 0,50 |
| 622.047,52 | 2.099,41 | 622.047,53 | 0,90 |
| 1.244.095,05 | 7.697,84 | 1.244.095,06 | 1,30 |
| 2.488.190,11 | 23.871,08 | 2.488.190,11 | 1,70 |
| 4.976.380,22 | 66.170,31 | 4.976.380,22 | 2,10 |
| 9.952.760,44 | 170.674,29 | Gainerakoa | 2,50 |

Lau. 36. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak:

Subjektu pasiboek nahitaez aurkeztu beharko dute aitorpena haien tributu-kuota (zergaren arauei jarraikiz zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean, edo, kasu hori gertatzen ez denean, ondoko bi kasuetakoren bat gertatuz gero:

1. Haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauekin bat zehaztua, 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

2. Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-jardueretatik eratorritako etekinak izatea erreferentziazko ekitaldian.”

Bost. Xedapen iragankor bat eransten da, hirugarrena. Hona hemen testua:

“Hirugarren xedapen iragankorra.

1. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, 30. artikuluko eskalan arautatako karga-tasei ondoko eskalan arautatakoak gehituko zaizkie:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,00 |
| 155.511,88 | 0,00 | 155.511,88 | 0,00 |
| 311.023,76 | 0,00 | 311.023,76 | 0,00 |
| 622.047,52 | 0,00 | 622.047,53 | 0,00 |
| 1.244.095,05 | 0,00 | 1.244.095,06 | 0,10 |
| 2.488.190,11 | 1.244,09 | 2.488.190,11 | 0,30 |
| 4.976.380,22 | 8.708,66 | 4.976.380,22 | 0,60 |
| 9.952.760,44 | 38.566,94 | Gainerakoa | 0,90 |

2. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, zerga horren kuotaren murriztapenak, 31. artikuluaren 2. idatz-zatian jasotakoak, ezin izanen du ehuneko 40tik gorakoa izan.”

**6. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**
JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen testu berria:

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.

Bat. 40. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Zerga oinarria murriztu ahalko da, ehuneko 50era arte gehienez ere, justu aurreko hamabost urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboen bidez. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek”.

Bi. Indarrik gabe gelditzen da, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, 50. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra.

Hiru. 50. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, c) letra. Testu hau izanen du:

"Artikulu honetako 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan definitutako karga-tasak ehuneko bost jaitsiko dira, baldin eta idatz-zati horietan identifikatutako entitateek beren langileekin, zuzendaritza langileak kenduta, adosten badute gutxienez ere zergen aurreko kontabilitate-etekinen ehuneko 25 banatzea. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zuzendaritza langiletzat hartuko dira administrazio-organoetako kide direnak; zuzendaritza nagusia, gerentzia edo baliokidea dutenak, eta zuzenean aurrekoen menpean daudenak".

Lau. 64. artikuluko c) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

" c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak ekitaldi bakoitzean honako kopuruetako bat gainditzea:

Ibilgetu materialetan eta higiezinen inbertsioetan lehendik zeuden kontabilitate-balioen baturaren ehuneko 7,5, amortizazioak kenduta.

Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate-balio guztiaren ehuneko 15, amortizazioak kenduta.

Kontabilitate-balioa zehazteko, begiratuko zaio inbertsioa eginen den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari, eta egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona ez da zenbatuko.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorraren edo, baldin badaude, ofizialki onetsitako sektorekako planen kontu berean (hiru digitukoa) sartu dena edo sartuko dena.

Aurreko lerrokadan aurreikusten denaren ondorioetarako, foru lege honetako 17. artikuluak hizpide dituen finantza errentamenduko kontratuen arabera erositakoak ere izaera bereko aktibo finkoetan sartuko dira".

Bost. 68. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Lanbide-heziketako jarduerak egiteak eskubidea emanen du kuota likidoan ehuneko 15eko kenkaria egiteko. Enpresa txikiek hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak egiten dituztenean, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan haiek definitutako moduan, kenkari hori ehuneko 20koa izanen da".

Sei. Beste artikulu bat gehitzen da, 70 quater, "Esportazioa sustatzeagatiko kenkaria" izenekoa. Testu hau izanen du:

"70 quater artikulua. Esportazioa sustatzeagatiko kenkaria.

1. Enpresek, artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, erreferentziazko ekitaldian handitu egin badute beren esportazio-ratioa, eskubidea izanen dute erreferentziazko ekitaldi horretan sortutako kenkariak 1,1rekin biderkatzeko, honako artikuluak babes hartuta: 63.etik 65.era bitartekoak, 66, 68, 69, 70. bis, 70. ter, 70. quinquies eta 71. artikuluak.

2. Ulertuko da enpresa batek handitu egin duela bere esportazio-ratioa bi baldintza hauek betetzen direnean.

–Ekitaldian eginiko salmenta guztiak kontuan hartuta, estatutik kanpo egindako salmenten ehunekoak 5 portzentaje-puntutan gainditzen badu aurreko ekitaldian egindakoen ehunekoa; alderaketa hori egiteko, aurreko ekitaldiko portzentajea berdin-berdin kalkulatu beharko da, ekitaldi horretako magnitudeekin.

–Estatutik kanpo eginiko salmentak % 10 igo badira aurreko ekitaldian estatutik kanpo eginiko salmentekin alderatuta.

3. Enpresa txikiak badira, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren araberakoak, artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazten diren artikuluen babesean sortutako kenkariak 1,25ekin biderkatuko dira, 1,1ekin biderkatu beharrean".

Zazpi. Beste artikulu bat gehitzen da, 70 quinquies, "Enpresen kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria" izenekoa. Testu hau izanen du:

"70 quinquies artikulua. Enpresa txikien kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria."

Enpresa txikiek, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren araberakoek, kuota likidotik kopuru bat kendu ahalko dute; hain zuzen ere, ekitaldia ixtean dituzten kontabilitate funts berekietatik kendu kapitala, legezko erreserba eta erabil ez daitezkeen gainerako erreserbak, eta emaitza positibo horren ehuneko 1".

Zortzi. 71. artikuluko 1., 2., 3. eta 6. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

"1. Ekitaldian lan-kontratu mugagabeko plantillaren batez bestekoan zenbat pertsona gehitu diren, aurreko urteko ekitaldiko plantillan horrelako lan-kontratua zutenen batez bestekoarekin alderatuta, pertsona-urteko 4.500 euroko kenkaria aplikatu ahalko da kuotan.

Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldi partzialerako kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen proportzioaren arabera kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero.

Kenkariak muga bat izanen du; hain zuzen ere, ekitaldi horretan lan-kontratu mugagabedunetan izandako pertsona-urteko gehikuntza, aurreko lerrokadan ezarritako irizpideen arabera kalkulatua, edozein izan dela ere ekitaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza.

2. Aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa berdina edo handiagoa den kasuetan, lan-kontratu mugagabea dutenen plantillaren batez bestekoa igotzen bada plantilla osoaren batez bestekoa igotzen denaren gainetik, gehikuntza bien arteko diferentziagatik 1.600 euroko kenkaria aplikatuko da.

Baldin eta, aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuta, igotzen bada plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, aurreko idatz-zatiko kenkaria diferentzia positiboaren gainean gauzatuko da; alegia, aipatu gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez bestekoaren murrizpenaren artean gertatzen den diferentziaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 6.000 eta 2.800 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, langile minusbaliatuen batez besteko plantillan gehitutako pertsona-urte bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatuta, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

6. Aurreko zenbakietako kenkariak bateraezinak dira elkarren artean. Gainera, baliagarriak izateko, kenkarietarako bide emandako plantilla gehikuntzek hurrengo bi ekitaldietan jarraitu beharko dute, etenik gabe".

Bederatzi. 167. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, D) letra. Testu hau izanen du:

"D) Bere xede sozialaren garapen gisa sortzen dituzten enpresek foru araubidearen arabera ordain ditzatela zergak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen I. tituluarekin bat".

Hamar. Hogeita batgarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Subjektu pasiboek ekarpenak egin ahal izanen dizkiote foru lege honetako IV. tiluluko XI. kapituluko 2. atalak hizpide duen erreserba bereziari, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenbiziko ekitaldian lorturiko etekinen kargura".

Hamaika. Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorreko 5. idatz-zatia aldatzen da. Hona testua:

"5. Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldiko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduak proportzionalki kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero".

**7. ZUZENKETA**

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
**TALDE POPULARRAK**
AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen gainekoa), Hiru atalean, 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

"1. Zerga-oinarria ehuneko 45 murritz daiteke baldin eta kantitateak, ekitaldiko kontabilitateko mozkinetakoak izanik, inbertsioetarako erreserba berezi batera bideratzen badira, atal honetan azaltzen diren baldintzetan eta beharkizunekin. Portzentaje hori ehuneko 60koa izanen da, 50.1.b) artikuluaren azken lerroaldean xedatutakoarekin bat mikroenpresa izaera duten subjektu pasiboen kasuan".

Zioak: Koherentzia normatiboa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearekin; izan ere, azken lerrokadan, berez, mikroenpresei buruz ari da, eta ez enpresa txikiei buruz.

**8. ZUZENKETA**

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
**TALDE POPULARRAK**
AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeari buruzko aldaketak biltzen ditu), Hiru atalean, 41. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“1. Zerga-oinarria ehuneko 45 murritz daiteke baldin eta kantitateak, ekitaldiko kontabilitateko mozkinetakoak izanik, inbertsioetarako erreserba berezi batera bideratzen badira, atal honetan azaltzen diren baldintzetan eta beharkizunekin. Portzentaje hori ehuneko 60koa izanen da, 50.1.b) artikuluaren azken lerroaldean xedatutakoarekin bat enpresa txiki izaera duten subjektu pasiboen kasuan”. Mikroenpresen kasuan, portzentajea % 70ekoa izanen da.

Zioak: Zerga-oinarri espezifikoa murrizteko aukera ematea enpresa txikiei eta mikroenpresei, lege proiektuak ez baitu alderdi hori jasotzen. Zuzenketa hau bat dator lege proiektuaren asmoarekin, hau da, jarduera ekintzailea sustatzeko asmoarekin.

Enpresa txiki eta ertainen nahiz mikroenpresen gainean Europako Batzordeak emandako definizioetara eta sailkapenera egokitzea

**9. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari beste atal bat –Bat bis– gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Bat bis atala gehitzen da.

11.1 artikuluan, testu berria izanen dute b) letraren a') eta c') azpiletrek, eta beste letra bat ere, e), gehitzen da:

“a') Inbertsio funtsak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen dituenak”.

“c') Pentsio funtsak, azaroaren 29ko 1/2012 Legegintzako Errege Dekretuan –Pentsio-Plan eta -Funtsak arautzen dituen Legearen Testu Bateginean– araututakoak.

“e) Aktibo bankarioen funtsak, Kreditu entitateak Berregituratzeko eta Desegiteko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen hamargarren xedapen gehigarriak aipatzen dituenak”.

Zioak: Kreditu entitateak Berregituratzeko eta Desegiteko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian dago aurreikusita aktibo bankarioen funtsen sorrera (“FAB” ere deituak). Funts horiek dira Bankuen Berregituratzetik Heldutako Aktiboak Kudeatzeko Sozietatearen aktibo- eta pasibo-multzoak, zeinak ondare bereiziak baitira, nortasun juridikorik gabeak, baina eskubideen eta betebeharren titularrak.

Bada, funts horiek, nortasun juridikorik gabeak badira ere, sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibotzat jo beharra dago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 11. artikuluan zerrendatzen diren beste funts batzuk bezala. Horregatik erantsi da e) letra 11.1 artikuluan.

Bide batez, zuzenketa aprobetxatu da 11.1 artikulu horretako b) letraren pean dauden a') eta c') azpiletren testua egokitzeko eta behar bezala igor dezaten indarrean dauden legeetara.

**10. ZUZENKETA**

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari beste atal bat –Hamar bis– gehitzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamar bis atala gehitzen da. 88.5. artikuluari letra bat gehitzen zaio; f) letra, hain zuzen ere:

“f) Loterietako eta apustuetako sariak, baldin eta, duten zenbatekoagatik, salbuetsita badaude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriak aipagai duen karga berezitik. Izatekotan, atxikipena eginen da zergagai den sariaren zenbateko salbuetsigabean, aipaturiko xedapenari jarraituz”.

Zioak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriak karga berezi bat ezarri du, zerga horretako subjektu pasiboentzat, zenbait loteria eta apustutako sarien gainean. Edozein modutan, karga horretatik salbuetsita egonen dira zenbateko osoa 2.500 eurokoa edo horretatik beherakoa duten sariak; zenbateko osoa 2.500 eurotik gorakoa duten sariak, jakina, karga bereziari lotuta egonen dira, zenbateko horretatik gorako zatiari dagokionez.

Sari horiei atxikipena eginen zaie salbuetsi gabe duen zatiaren gainean, hau da, 2.500 eurotik gorako partearen gainean.

Bada, sozietateen gaineko zergan, PFEZean xedatutakoarekin bat, ezartzen da loterietako eta apustuetako sarien ordaintzaileek (atxikitzaileek) ez dutela atxikipenik egingo karga berezitik salbuetsita dauden sarietan, eta atxikipen hori egin beharko dutela zerga horretatik salbuetsita ez

dagoen partean, hau da, 2.500 eurotik gorako zatian.

Horrela, beraz, sariaren hartzailea sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa denean, xedatzen da loterietako eta apustuetako sarien ordaintzaileek (atxikitzaileek) ez dutela atxikipenik egingo karga berezitik zenbatekoagatik salbuetsita leudekeen sarietan, eta atxikipen hori egin beharko dutela zerga horretatik salbuetsita ez dagoen partean; hau da, 2.500 eurotik gorako zatian.

## 11. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
**TALDE POPULARRAK**
AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona aldatu nahi den lerrokada:

"Jarduera ekintzailea da berritzat jotzen den enpresa edo lanbide jarduera; hau da, lehenago beste titulartasun batetik osorik edo hein batean gauzatu ez dena. Ekintzailetzat jotzen dira enpresa edo lanbide jarduera ekintzaile batean hasten diren pertsona fisikoak. Jarduera hori langile autonomo gisa gara dezakete edo, bestela, zergak errenten egozpeneko araubidean ordaintzen dituen entitate bateko kide gisa, edo kooperatiba sozietate bateko edo merkataritza sozietate bateko bazkide gisa. Gainera, enpresa txikia edota mikroenpresa izan beharko du eta hiru urteko bizia baino laburragoa izan".

Zioak: Lege proiektuan agertzen den jarduera ekintzailearen definizioan mikroenpresaren kontzeptua gehitzea. Jarduera ekintzailearen parte handi bat mikroenpresen bidez jartzen da abian.

## 12. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 17. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

Zioen azalpena 17. lerrokadaren aldaketa.

"Jarduera ekintzailea da berritzat jotzen den enpresa edo lanbide jarduera, hau da, beste titulartasun baten bidez lehenago osorik edo hein batean gauzatu ez dena. Ekintzailetzat jotzen dira enpresa edo lanbide jarduera ekintzaile batean hasten diren pertsona fisikoak. Jarduera hori langile autonomo gisa gara dezakete edo, bestela, zergak errenten egozpeneko araubidean ordaintzen dituen entitate bateko kide gisa, edo kooperatiba sozietate bateko edo merkataritza sozietate bateko bazkide gisa. Gainera, enpresa txikia izan beharko du eta lau urteko bizia baino laburragoa izan".

Zioak: Lerrokada horren aldaketarekin nahi dena da pertsona bat edo entitate bat ekintzaile jotzeko enpresari eskatzen zaion existentzia-epea hiru urtetik laura luzatzea.

Arrazoia da zioen azalpenaren testua egokitu egin behar dela foru lege proiektuaren lehenengo artikuluko Hamabi atalean xedatutakora, non, pertsona edo entitate ekintzaileen araubide fiskala arautzean, baldintza gisa ezartzen baita "lau urteko bizia baino gutxiago izatea".

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena.

*AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**

PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen testu berria:

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

Bat. 25. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“2. Etxebizitzatarako ondasun higiezinen errentamenduetatik eratorriak diren kapital higiezinaren etekinetan honako etekinak sartuko dira: sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzarekin eginiko errentamenduak egiten dituzten etxebizitza-jabeek lortutakoak, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautuko dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluan xedatuaren arabera.

3. Erregelamenduz denboran modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen diren errendimendu garbi positiboei, edota bi urtetik gorako epean lortutakoei, ehuneko 40ko murriztapena aplikatuko zaie. Errendimenduen sortze-aldiaren zenbaketak, errendimendu horiek era zatikatuan kobratzen badira, kontuan hartu beharko du zatikapen-urteen kopurua, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz.”

Bi. 54. artikuluko 1. b) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“b) Ondare-elementuen eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen eta urtebete baino gehiagoko epean gertatzen diren ondare-gehikuntza edo -murrizketengatik. Halaber, aurrezkiaren atal berezian integratuko dira ohiko etxebizitza eskuratu edo zaharberritzeagatik kapital moduan jasotako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak.”

Hiru. 55. artikuluko 3. idatz-zatia (“Gutxieneko pertsonalarengatik”) kentzen da.

Lau. Berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

“58. artikuluak aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikuluak aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 3.825 | - 2,0 |
| 3.825 | - 76,50 | 4.674 | - 1,0 |
| 8.499 | - 123,24 | 9.027 | 0,0 |
| 17.526 | - 123,24 | 13.279 | 1,5 |
| 30.805 | 75,95 | 14.675 | 2,0 |
| 45.480 | 369,45 | 7.927 | 2,5 |
| 53.407 | 567,62 | 34.593 | 3,0 |
| 88.000 | 1.605,41 | 37.000 | 4,0 |
| 125.000 | 3.085,41 | 50.000 | 5,0 |
| 175.000 | 5.585,41 | 125.000 | 7,0 |
| 300.000 | 14.335,41 | Gainerakoa | |

b) 60. artikuluak aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 6.000 | 1 |
| 6.000 | 60,00 | 18.000 | 3 |
| 24.000 | 600,00 | Gainerakoa | 7 |

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta".

Bost. 62. artikuluko 1.g) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzak badira, a) letran aipatutako portzentajea % 18koa izanen da. Portzentaje hori % 30ekoa izanen da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen familia ugariek eskuratutako ohiko etxebizitza denean, hain zuzen ere familia-izaera hori dutenek, Familia Ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera".

Sei. 62. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"2. Etxebizitzaren alokairuagatiko kenkaria.

%18 eta gehienez ere 1.100 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru-kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

Subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak kenduta, ez izatea zergaldian 30.000 eurotik gorakoak.

Zergaldian alokairu kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruak, salbuetsiak kenduta, subjektu pasiboak zergaldian izandako errenten %10 gainditzea".

Zazpi. 62. artikuluko 5.1.a idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"5. Lanagatiko kenkaria.

"Lehena. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro.

b) 9.100,01 eta 13.500 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro ken

eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,135.

c) 13.500,01 eta 31.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 31.000,01 eta 45.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 31.000 euro, eta horren emaitza bider 0,05.

e) 45.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 0 euro".

Zortzi. 62. artikuluaren amaieran 12. idatz-zatia gehitzen da:

"12. Gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 925 eurokoa izanen da.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 225 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Kopuru hori 500 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituenean.

b) 625 euro, % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasun gradua frogatzen duten subjektu pasibo ezgaituentzat. Zenbateko hori 2.250 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatuz gero bere minusbaliotasun gradua % 65ekoa edo handiagoa dela".

Bederatzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatia aldatzen da.

"1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkariari, testu bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoari, dagokionez, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikulu horren a) eta g) letretan ezarritako kenkariportzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa izanen dira, hurrenez hurren, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzen kasuan."

---

# Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

*AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen. Proposamen hori 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**

PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehenengo eta bigarren artikuluak artikulu berri batekin ordezkatzeko zuzenketa. Hona artikulu berriaren testua:

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

Bat. 25. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

"2. Etxebizitzatarako ondasun higiezinen errentamenduetatik eratorriak diren kapital higiezinaren etekinetan honako etekinak sartuko dira: sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzarekin eginiko errentamenduak egiten dituzten etxebizitza-jabeek lortutakoak, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautuko dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluan xedatuaren arabera.

3. Erregelamenduz denboran modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen diren errendimendu garbi positiboei, edota bi urtetik gorako

epean lortutakoei, ehuneko 40ko murriztapena aplikatuko zaie. Errendimenduen sortze-aldiaren zenbaketak, errendimendu horiek era zatikatuan kobratzen badira, kontuan hartu beharko du zatikapen-urteen kopurua, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz."

Bi. 54. artikuluko 1. b) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"b) Ondare-elementuen eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen eta urtebete baino gehiagoko epean gertatzen diren ondare-gehikuntza edo -murrizketengatik. Halaber, aurrezkiaren atal berezian integratuko dira ohiko etxebizitza eskuratu edo zaharberritzeagatik kapital moduan jasotako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak."

Hiru. 55. artikuluko 3. idatz-zatia ("Gutxieneko pertsonalarengatik") kentzen da.

Lau. Berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

"58. artikuluak aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikuluak aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 3.825 | -2,0 |
| 3.825 | -76,50 | 4.674 | -1,0 |
| 8.499 | -123,24 | 9.027 | 0,0 |
| 17.526 | -123,24 | 13.279 | 1,5 |
| 30.805 | 75,95 | 14.675 | 2,0 |
| 45.480 | 369,45 | 7.927 | 2,5 |
| 53.407 | 567,62 | 34.593 | 3,0 |
| 88.000 | 1.605,41 | 37.000 | 4,0 |
| 125.000 | 3.085,41 | 50.000 | 5,0 |
| 175.000 | 5.585,41 | 125.000 | 7,0 |
| 300.000 | 14.335,41 | Gainerakoa | 9,0 |

b) 60. artikuluak aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 6.000 | 1 |
| 6.000 | 60,00 | 18.000 | 3 |
| 24.000 | 600,00 | Gainerakoa | 7 |

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta".

Bost. 62. artikuluko 1.g) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzak badira, a) letran aipatutako portzentajea ehuneko 18koa izanen da.

Portzentaje hori % 30ekoa izanen da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen familia ugariek eskuratutako ohiko etxebizitza denean, hain zuzen ere familia-izaera hori dutenek, Familia Ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera".

Sei. 62. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"2. Etxebizitzaren alokairuagatiko kenkaria.

%18 eta gehienez ere 1.100 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru-kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak kenduta, ez izatea zergaldian 30.000 eurotik gorakoak.

– Zergaldian alokairu kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruak, salbuetsiak kenduta, subjektu pasiboak zergaldian izandako errenten %10 gainditzea".

Zazpi. 62. artikuluko 5.1.a idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"5. Lanagatiko kenkaria.

"Lehena. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro.

b) 9.100,01 eta 13.500 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,135.

c) 13.500,01 eta 31.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 31.000,01 eta 45.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 31.000 euro, eta horren emaitza bider 0,05.

e) 45.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 0 euro".

Zortzi. 62. artikuluaren amaieran 12. idatz-zatia gehitzen da:

"12. Gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 925 eurokoa izanen da.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 225 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Kopuru hori 500 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituenean.

b) 625 euro, % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasun gradua frogatzen duten subjektu pasibo ezgaituentzat. Zenbateko hori 2.250 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatuz gero bere minusbaliotasun gradua % 65ekoa edo handiagoa dela".

Bederatzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatia aldatzen da.

"1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkariari, testu bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoari, dagokionez, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikulu horren a) eta g) letretan ezarritako kenkari-portzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa izanen dira, hurrenez hurren, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzen kasuan."

## 2. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA**

PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen ordezko testu berria:

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea

Bat. 5. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

"7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere."

Bi. 28. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

"28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 300.000 euro murriztuko da.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributuak bai betebehar pertsonalarengatik bai betebehar errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboei".

Hiru. 30. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

"30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,15 |
| 155.511,88 | 233,27 | 155.511,88 | 0,20 |
| 311.023,76 | 544,29 | 311.023,76 | 0,50 |
| 622.047,52 | 2.099,41 | 622.047,53 | 0,90 |
| 1.244.095,05 | 7.697,84 | 1.244.095,06 | 1,30 |
| 2.488.190,11 | 23.871,08 | 2.488.190,11 | 1,70 |
| 4.976.380,22 | 66.170,31 | 4.976.380,22 | 2,10 |
| 9.952.760,44 | 170.674,29 | Gainerakoa | 2,50 |

Lau. 36. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak:

Subjektu pasiboek nahitaez aurkeztu beharko dute aitorpena haien tributu-kuota (zergaren arauei jarraikiz zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean, edo, kasu hori gertatzen ez denean, ondoko bi kasuetakoren bat gertatuz gero:

1. Haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauekin bat zehaztua, 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

2. Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-jardueretatik eratorritako etekinak izatea erreferentziazko ekitaldian.”

Bost. Xedapen iragankor bat eransten da, hirugarrena. Hona hemen testua:

“Hirugarren xedapen iragankorra.

1. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, 30. artikuluko eskalan araututako kargatasei ondoko eskalan araututakoak gehituko zaizkie:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,00 |
| 155.511,88 | 0,00 | 155.511,88 | 0,00 |
| 311.023,76 | 0,00 | 311.023,76 | 0,00 |
| 622.047,52 | 0,00 | 622.047,53 | 0,00 |
| 1.244.095,05 | 0,00 | 1.244.095,06 | 0,10 |
| 2.488.190,11 | 1.244,09 | 2.488.190,11 | 0,30 |
| 4.976.380,22 | 8.708,66 | 4.976.380,22 | 0,60 |
| 9.952.760,44 | 38.566,94 | Gainerakoa | 0,90 |

2. 2012,2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, zerga horren kuotaren murriztapenak, 31. artikuluaren 2. idatz-zatian jasotakoak, ezin izanen du ehuneko 40tik gorakoa izan”.

**3. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**

PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Laugarren eta bosgarren artikuluak artikulu berri batekin ordezkatzeko zuzenketa. Hona artikulu berriaren testua:

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea.

Bat. 40. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Zerga oinarria murriztu ahalko da, ehuneko 50era arte gehienez ere, justu aurreko hamabost urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboen bidez. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek".

Bi. Indarrik gabe gelditzen da, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, 50. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra.

Hiru. 50. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, c) letra. Testu hau izanen du:

"Artikulu honetako 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan definitutako karga-tasak ehuneko bost jaitsiko dira, baldin eta idatz-zati horietan identifikatutako entitateek beren langileekin, zuzendaritza langileak kenduta, adosten badute gutxienez ere zergen aurreko kontabilitate-etekinen ehuneko 25 banatzea. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zuzendaritza langiletzat hartuko dira administrazio-organoetako kide direnak; zuzendaritza nagusia, gerentzia edo baliokidea dutenak, eta zuzenean aurrekoen menpean daudenak".

Lau. 64. artikuluko c) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

" c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak ekitaldi bakoitzean honako kopuruetako bat gainditzea:

Ibilgetu materialetan eta higiezinen inbertsioetan lehendik zeuden kontabilitate-balioen baturaren ehuneko 7,5, amortizazioak kenduta.

Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate-balio guztiaren ehuneko 15, amortizazioak kenduta.

Kontabilitate-balioa zehazteko, begiratuko zaio inbertsioa eginen den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari, eta egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona ez da zenbatuko.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorraren edo, baldin badaude, ofizialki onetsitako sektorekako planen kontu berean (hiru digitukoa) sartu dena edo sartuko dena.

Aurreko lerrokadan aurreikusten denaren ondorioetarako, foru lege honetako 17. artikuluak hizpide dituen finantza errentamenduko kontratuen arabera erositakoak ere izaera bereko aktibo finkoetan sartuko dira".

Bost. 68. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Lanbide-heziketako jarduerak egiteak eskubidea emanen du kuota likidoan ehuneko 15eko kenkaria egiteko. Enpresa txikiek hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak egiten dituztenean, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan haiek definitutako moduan, kenkari hori ehuneko 20koa izanen da".

Sei. Beste artikulu bat gehitzen da, 70 quater, "Esportazioa sustatzeagatiko kenkaria" izenekoa. Testu hau izanen du:

"70 quater artikulua. Esportazioa sustatzeagatiko kenkaria.

1. Enpresek, artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, erreferentziazko ekitaldian handitu egin badute beren esportazio-ratioa, eskubidea izanen dute erreferentziazko ekitaldi horretan sortutako kenkariak 1,1rekin biderkatzeko, honako artikuluak babes hartuta: 63.etik 65.era bitartekoak, 66, 68, 69, 70. bis, 70. ter, 70. quinquies eta 71. artikuluak.

2. Ulertuko da enpresa batek handitu egin duela bere esportazio-ratioa bi baldintza hauek betetzen direnean.

– Ekitaldian eginiko salmenta guztiak kontuan hartuta, estatutik kanpo egindako salmenten ehunekoak 5 portzentaje-puntutan gainditzen badu aurreko ekitaldian egindakoen ehunekoa; alderaketa hori egiteko, aurreko ekitaldiko portzentajea berdin-berdin kalkulatu beharko da, ekitaldi horretako magnitudeekin.

– Estatutik kanpo eginiko salmentak % 10 igo badira aurreko ekitaldian estatutik kanpo eginiko salmentekin alderatuta.

3. Enpresa txikiak badira, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren araberakoak, artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazten diren artikuluen babesean sortutako kenkariak 1,25ekin biderkatuko dira, 1,1ekin biderkatu beharrean".

Zazpi. Beste artikulu bat gehitzen da, 70 quinquies, "Enpresen kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria" izenekoa. Testu hau izanen du:

"70 quinquies artikulua. Enpresa txikien kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria."

Enpresa txikiek, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren araberakoek, kuota likidotik kopuru bat kendu ahalko dute; hain zuzen ere, ekitaldia ixtean dituzten funts berekietatik kendu kapitala, legezko erreserba eta erabil ez daitezke-

en gainerako erreserbak, eta emaitza positibo horren ehuneko 1".

Zortzi. 71. artikuluko 1., 2., 3. eta 6. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

"1. Ekitaldian lan-kontratu mugagabeko plantillaren batez bestekoan zenbat pertsona gehitu diren, aurreko urteko ekitaldiko plantillan horrelako lan-kontratua zutenen batez bestekoarekin alderatuta, pertsona-urteko 4.500 euroko kenkaria aplikatu ahalko da kuotan.

Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldiko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduak proportzionalki kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero".

Kenkariak muga bat izanen du; hain zuzen ere, ekitaldi horretan lan-kontratu mugagabedunetan izandako pertsona-urteko gehikuntza, aurreko lerrokadan ezarritako irizpideen arabera kalkulatua, edozein izan dela ere ekitaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza.

2. Aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa berdina edo handiagoa den kasuetan, lan-kontratu mugagabea dutenen plantillaren batez bestekoa igotzen bada plantilla osoaren batez bestekoa igotzen denaren gainetik, gehikuntza bien arteko diferentziagatik 1.600 euroko kenkaria aplikatuko da.

Baldin eta, aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuta, igotzen bada plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, aurreko idatz-zatiko kenkaria diferentzia positiboaren gainean gauzatuko da; alegia, aipatu gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez bestekoaren murrizpenaren artean gertatzen den diferentziaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 6.006 eta 2.800 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, langile minusbaliatuen batez besteko plantillan gehitutako pertsona-urte bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatuta, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

6. Aurreko zenbakietako kenkariak bateraezinak dira elkarren artean. Gainera, baliagarriak izateko, kenkarietarako bide emandako plantilla gehikuntzek hurrengo bi ekitaldietan jarraitu beharko dute, etenik gabe".

Bederatzi. 167. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, D) letra. Testu hau izanen du:

"D) Bere xede sozialaren garapen gisa sortzen dituzten enpresek foru araubidearen arabera ordain ditzatela zergak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen I. tituluarekin bat".

Hamar. Hogeita batgarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Subjektu pasiboek ekarpenak egin ahal izanen dizkiote foru lege honetako IV. tiluluko XI. kapituluko 23. atalak hizpide duen erreserba bereziari, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenbiziko ekitaldian lorturiko etekinen kargura".

Hamaika. Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorreko 5. idatz-zatia aldatzen da. Hona testua:

"5. Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldiko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduak proportzionalki kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero".

# Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 28. artikulua aldatzen duena.

*AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 28. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen. Proposamen hori 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**
PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen testu berria:

Artikulu bakarra. Modificación de la Ley sobre el Patrimonio.

Bat. 5. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere.”

Bi. 28. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 300.000 euro murriztuko da.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributuak bai betebehar pertsonalarengatik bai betebehar errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboei.”

Hiru. 30. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,15 |
| 155.511,88 | 233,27 | 155.511,88 | 0,20 |
| 311.023,76 | 544,29 | 311.023,76 | 0,50 |
| 622.047,52 | 2.099,41 | 622.047,53 | 0,90 |
| 1.244.095,05 | 7.697,84 | 1.244.095,06 | 1,30 |
| 2.488.190,11 | 23.871,08 | 2.488.190,11 | 1,70 |
| 4.976.380,22 | 66.170,31 | 4.976.380,22 | 2,10 |
| 9.952.760,44 | 170.674,29 | Gainerakoa | 2,50 |

Lau. 36. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak:

Subjektu pasiboek nahitaez aurkeztu beharko dute aitorpena haien tributu-kuota (zergaren arauei jarraikiz zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean, edo, kasu hori gertatzen ez denean, ondoko bi kasuetakoren bat gertatuz gero:

1. Haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauekin bat zehaztua, 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

2. Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-jardueretatik eratorritako etekinak izatea erreferentziazko ekitaldian.”

Bost. Xedapen iragankor bat eransten da, hirugarrena. Hona hemen testua:

"Hirugarren xedapen iragankorra.

1. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, 30. artikuluko eskalan araututako kargatasei ondoko eskalan araututakoak gehituko zaizkie:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,00 |
| 155.511,88 | 0,00 | 155.511,88 | 0,00 |
| 311.023,76 | 0,00 | 311.023,76 | 0,00 |
| 622.047,52 | 0,00 | 622.047,53 | 0,00 |
| 1.244.095,05 | 0,00 | 1.244.095,06 | 0,10 |
| 2.488.190,11 | 1.244,09 | 2.488.190,11 | 0,30 |
| 4.976.380,22 | 8.708,66 | 4.976.380,22 | 0,60 |
| 9.952.760,44 | 38.566,94 | Gainerakoa | 0,90 |

2. 2012,2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, zerga horren kuotaren murriztapenak, 31. artikuluaren 2. idatz-zatian jasotakoak, ezin izanen du ehuneko 40tik gorakoa izan"."

---

# Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzkoa.

*AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut neurri fiskalei eta zenbait zerga aldatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen. Proposamen hori 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA**

PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen testu berria:

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren aldaketa.

Bat. 25. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

"2. Etxebizitzatarako ondasun higiezinen errentamenduetatik eratorriak diren kapital higiezinaren etekinetan honako etekinak sartuko dira: sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzarekin eginiko errentamenduak egiten dituzten etxebizitza-jabeek lortutakoak, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautuko dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluan xedatuaren arabera.

3. Erregelamenduz denboran modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen diren errendimendu garbi positiboei, edota bi urtetik gorako epean lortutakoei, ehuneko 40ko murriztapena aplikatuko zaie. Errendimenduen sortze-aldiaren zenbaketak, errendimendu horiek era zatikatuan kobratzen badira, kontuan hartu beharko du zatikapen-urteen kopurua, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz."

Bi. 54. artikuluko 1. b) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du: .

"b) Ondare-elementuen eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen eta urtebete baino gehiagoko epean gertatzen diren ondare-gehikuntza edo -murrizketengatik. Halaber, aurrezkiaren atal berezian integratuko dira ohiko etxebizitza eskuratu edo zaharberritzeagatik kapital moduan jasotako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak".

Hiru. 55. artikuluko 3. idatz-zatia ("Gutxieneko pertsonalarengatik") kentzen da.

Lau. Berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

"58. artikuluak aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikuluak aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 3.825 | -2,0 |
| 3.825 | -76,50 | 4.674 | -1,0 |
| 8.499 | -123,24 | 9.027 | 0,0 |
| 17.526 | -123,24 | 13.279 | 1,5 |
| 30.805 | 75,95 | 14.675 | 2,0 |
| 45.480 | 369,45 | 7.927 | 2,5 |
| 53.407 | 567,62 | 34.593 | 3,0 |
| 88.000 | 1.605,41 | 37.000 | 4,0 |
| 125.000 | 3.085,41 | 50.000 | 5,0 |
| 175.000 | 5.585,41 | 125.000 | 7,0 |
| 300.000 | 14.335,41 | Gainerakoa | 9,0 |

b) 60. artikuluak aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzetik heldu dena:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 6.000 | 1 |
| 6.000 | 60,00 | 18.000 | 3 |
| 24.000 | 600,00 | Gainerakoa | 7 |

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta".

Bost. 62. artikuluko 1.g) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzak badira, a) letran aipatutako portzentajea % 18koa izanen da. Portzentaje hori % 30ekoa izanen da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen familia ugariek eskuratutako ohiko etxebizitza denean, hain zuzen ere familia-izaera hori dutenek, Familia Ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera".

Sei. 62. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"2. Etxebizitzaren alokairuagatiko kenkaria.

%18 eta gehienez ere 1.100 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru-

kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak zergaldian ez izatea 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, salbuetsiak bazter utzita.

– Alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak subjektu pasiboaren zergaldiko errenten ehuneko 10 baino gehiagokoak izatea, salbuetsiak bazter utzita.”

Zazpi. 62. artikuluko 5.1.a idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“5. Lanagatiko kenkaria.

“Lehena. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro.

b) 9.100,01 eta 13.500 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,135.

c) 13.500,01 eta 31.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 31.000,01 eta 45.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 31.000 euro, eta horren emaitza bider 0,05.

e) 45.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 0 euro”.

Zortzi. 62. artikuluaren amaieran 12. idatz-zatia gehitzen da:

“12. Gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatiko kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 925 eurokoa izanen da.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 225 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Kopuru hori 500 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituenean.

b) 625 euro, % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko minusbaliotasun gradua frogatzen duten subjektu pasibo ezgaituentzat. Zenbateko hori 2.250 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatuz gero bere minusbaliotasun gradua % 65ekoa edo handiagoa dela”.

Bederatzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatia aldatzen da.

“1. “1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatiko kenkariari, testu bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoari, dagokionez, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikulu horren a) eta g) letretan ezarritako kenkariportzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, ehuneko 20koa, ehuneko 23koa eta ehuneko 35ekoa izanen dira, hurrenez hurren, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzen kasuan.”

## 2. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA**

PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen testu berria:

Bat. 40. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Zerga oinarria murriztu ahalko da, ehuneko 50era arte gehienez ere, justu aurreko hamabost urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboen bidez. Aurretik bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek”.

Bi. Indarrik gabe gelditzen da, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, 50. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra.

Hiru. 50. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, c) letra. Testu hau izanen du:

“Artikulu honetako 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan definitutako karga-tasak ehuneko bost jaitsiko dira, baldin eta idatz-zati horietan identifikatutako entitateek beren langileekin, zuzendaritza langileak kenduta, adosten badute gutxienez ere zergen aurreko kontabilitate-etekinen ehuneko 25 banatzea. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zuzendaritza langiletzat hartuko dira administrazio-organoetako kide direnak; zuzendaritza nagusia, gerentzia edo baliokidea dutenak, eta zuzenean aurrekoen menpean daudenak”.

Lau. 64. artikuluko c) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

“ c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak ekitaldi bakoitzean honako kopuruetako bat gainditzea:

Ibilgetu materialetan eta higiezinen inbertsioetan lehendik zeuden kontabilitate-balioen baturaren ehuneko 7,5, amortizazioak kenduta.

Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate-balio guztiaren ehuneko 15, amortizazioak kenduta.

Kontabilitate-balioa zehazteko, begiratuko zaio inbertsioa eginen den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari, eta egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona ez da zenbatuko.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorraren edo, baldin badaude, ofizialki onetsitako sektorekako planen kontu berean (hiru digitukoa) sartu dena edo sartuko dena.

Aurreko lerrokadan aurreikusten denaren ondorioetarako, foru lege honetako 17. artikuluak hizpide dituen finantza errentamenduko kontratuen arabera erositakoak ere izaera bereko aktibo finkoetan sartuko dira".

Bost. 68. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Lanbide-heziketako jarduerak egiteak eskubidea emanen du kuota likidoan ehuneko 15eko kenkaria egiteko. Enpresa txikiek hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak egiten dituztenean, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan haiek definitutako moduan, kenkari hori ehuneko 20koa izanen da".

Sei. Beste artikulu bat gehitzen da, 70 quater, "Esportazioa sustatzeagatiko kenkaria" izenekoa. Testu hau izanen du:

"70 quater artikulua. Esportazioa sustatzeagatiko kenkaria.

1. Enpresek, artikulu honetako 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, erreferentziazko ekitaldian handitu egin badute beren esportazio-ratioa, eskubidea izanen dute erreferentziazko ekitaldi horretan sortutako kenkariak 1,1rekin biderkatzeko, honako artikuluak babes hartuta: 63.etik 65.era bitartekoak, 66, 68, 69, 70. bis, 70. ter, 70. quinquies eta 71. artikuluak.

2. Ulertuko da enpresa batek handitu egin duela bere esportazio-ratioa bi baldintza hauek betetzen direnean.

–Ekitaldian eginiko salmenta guztiak kontuan hartuta, estatutik kanpo egindako salmenten ehunekoak 5 portzentaje-puntutan gainditzen badu aurreko ekitaldian egindakoen ehunekoa; alderaketa hori egiteko, aurreko ekitaldiko portzentajea berdin-berdin kalkulatu beharko da, ekitaldi horretako magnitudeekin.

–Estatutik kanpo eginiko salmentak % 10 igo badira aurreko ekitaldian estatutik kanpo eginiko salmentekin alderatuta.

3. Enpresa txikiak badira, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren araberakoak, artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazten diren artikuluen babesean sortutako kenkariak 1,25ekin biderkatuko dira, 1,1ekin biderkatu beharrean".

Zazpi. Beste artikulu bat gehitzen da, 70 quinquies, "Enpresen kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria" izenekoa. Testu hau izanen du:

"70 quinquies artikulua. Enpresa txikien kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria."

Enpresa txikiek, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren araberakoek, kuota likidotik kopuru bat kendu ahalko dute; hain zuzen ere, ekitaldia ixtean dituzten funts berekietatik kendu kapitala, legezko erreserba eta erabil ez daitezkeen gainerako erreserbak, eta emaitza positibo horren ehuneko 1".

Zortzi. 71. artikuluko 1., 2., 3. eta 6. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

"1. Ekitaldian lan-kontratu mugagabeko plantillaren batez bestekoan zenbat pertsona gehitu diren, aurreko urteko ekitaldiko plantillan horrelako lan-kontratua zutenen batez bestekoarekin alderatuta, pertsona-urteko 4.500 euroko kenkaria aplikatu ahalko da kuotan.

Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldi partzialerako kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen proportzioaren arabera kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero.

Kenkariak muga bat izanen du; hain zuzen ere, ekitaldi horretan lan-kontratu mugagabedunetan izandako pertsona-urteko gehikuntza, aurreko lerrokadan ezarritako irizpideen arabera kalkulatua, edozein izan dela ere ekitaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza.

2. Aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa berdina edo handiagoa den kasuetan, lan-kontratu mugagabea dutenen plantillaren batez bestekoa igotzen bada plantilla osoaren batez bestekoa igotzen denaren gainetik, gehikuntza bien arteko diferentziagatik 1.600 euroko kenkaria aplikatuko da.

Baldin eta, aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuta, igotzen bada plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa,

aurreko idatz-zatiko kenkaria diferentzia positiboaren gainean gauzatuko da; alegia, aipatu gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez bestekoaren murrizpenaren artean gertatzen den diferentziaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 6.000 eta 2.800 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, langile minusbaliatuen batez besteko plantillan gehitutako pertsona-urte bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatuta, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

6. Aurreko idatz-zatietan ezarritako kenkariak bateraezinak izanen dira euren artean. Gainera, baliagarriak izateko, kenkarietarako bide emandako plantilla gehikuntzek hurrengo bi ekitaldietan jarraitu beharko dute, etenik gabe".

Bederatzi. 167. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, D) letra. Testu hau izanen du:

"D) Bere xede sozialaren garapen gisa sortzen dituzten enpresek foru araubidearen arabera ordain ditzatela zergak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen I. tituluarekin bat".

Hamar. Hogeita batgarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

"1. Subjektu pasiboek ekarpenak egin ahal izanen dizkiote foru lege honetako IV. tiluluko XI. kapituluko 2. atalak hizpide duen erreserba bereziari, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenbiziko ekitaldian lorturiko etekinen kargura".

Hamaika. Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorreko 5. idatz-zatia aldatzen da. Hona testua:

"5. Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldiko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduak proportzionalki kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero".

## 3. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA**
PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua ordezteko zuzenketa. Hona zein izanen litzatekeen ordezko testu berria:

Hirugarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen aldaketa.

Bat. 5. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

"7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere".

Bi. 28. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

"28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 300.000 euro murriztuko da.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributuak bai betebehar pertsonalarengatik bai betebehar errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboei."

Hiru. 30. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

"30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,15 |
| 155.511,88 | 233,27 | 155.511,88 | 0,20 |
| 311.023,76 | 544,29 | 311.023,76 | 0,50 |
| 622.047,52 | 2.099,41 | 622.047,53 | 0,90 |
| 1.244.095,05 | 7.697,84 | 1.244.095,06 | 1,30 |
| 2.488.190,11 | 23.871,08 | 2.488.190,11 | 1,70 |
| 4.976.380,22 | 66.170,31 | 4.976.380,22 | 2,10 |
| 9.952.760,44 | 170.674,29 | Gainerakoa | 2,50 |

Lau. 36. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak:

Subjektu pasiboek nahitaez aurkeztu beharko dute aitorpena haien tributu-kuota (zergaren arauei jarraikiz zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean, edo, kasu hori gertatzen ez denean, ondoko bi kasuetakoren bat gertatuz gero:

1. Haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauekin bat zehaztua, 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

2. Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-jardueretatik eratorritako etekinak izatea erreferentziazko ekitaldian.”

Bost. Xedapen iragankor bat eransten da, hirugarrena. Hona hemen testua:

“Hirugarren xedapen iragankorra.

1. 2012,2013, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, 30. artikuluko eskalan arautukako karga-tasei ondoko eskalan arautakoak gehituko zaizkie:

| Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan) | Kuota osoa (eurotan) | Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan) | Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa) |
|---|---|---|---|
| | | 155.511,88 | 0,00 |
| 155.511,88 | 0,00 | 155.511,88 | 0,00 |
| 311.023,76 | 0,00 | 311.023,76 | 0,00 |
| 622.047,52 | 0,00 | 622.047,53 | 0,00 |
| 1.244.095,05 | 0,00 | 1.244.095,06 | 0,10 |
| 2.488.190,11 | 1.244,09 | 2.488.190,11 | 0,30 |
| 4.976.380,22 | 8.708,66 | 4.976.380,22 | 0,60 |
| 9.952.760,44 | 38.566,94 | Gainerakoa | 0,90 |

2. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, zerga horren kuotaren murriztapenak, 31. artikuluaren 2. idatz-zatian jasotakoak, ezin izanen du ehuneko 40tik gorakoa izan”.

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950